

www.ilanda.eu

**GETXOKO EAJren
KONPROMISOA :**

**ANDRA MARI AUZOAN
GARAPEN HARMONIOTSUA**

Getxo, 2007.eko maiatzak 18

www.eginbehardugu.com



EAJk bere konpromisoan, Getxo diseinatzea betebeharrak nabarmentzat hartu du, eta bere asmoa da diseinu horrek hiritarren eskaerei erantzutea. Baita ere EAJren proposamena garatzen hasteko momentuan hiritarrek adierazi duten parte-hartze nahiz inplikazio berberak joko dezaten, jakina.

Hiritar eta inplikaturako eragileei egin dizkieten **oinarrizko planteamenduak** hauek dira:

- ◆ Etorkizuneko Andra Mariren diseinua egiteko, **parte-hartzea bultzatuko da**. Hiritarrek, elkarteek eta inplikaturako taldeek Udalarekin komunikatzeko bide zuzenak izango dituzte.
- ◆ Andra Marin egingo diren **etxebizitza kopurua** Getxon dauden etxebizitza **behar errealean arabera zehaztuko da**, eta horren aurretik, hiri-lurzoruan eraikitze aukera guztiak agortuko dira. Inola ere **ez dira milaka etxebizitza eraikiko**, irizpide zuzenik gabe eta demagogikoki adierazten dabilzan bezala.
- ◆ Getxoko Andra Mari auzoak gaur egun dituen berezitasunak eta **idiosinkrasia ondo zainduko** dira. Horretarako, **garapeneren muga Zientzoetxe errepidean ezarriko da**, itsasertzerainoko birika berdea salbatzeko, orain dauden **auzo-multzoak bere horretan utziko dira** eta Getxoko **estarta nagusiak erreferentziatzat hartuko dira etorkizunean zirkulazio-bideak egiteko**. Oinarri horiek hartuta, argi dago EAJren proposamenean ez dela etxebizitza eraipen izugarria egingo, eta edozein kasutan ere, egoerak banan-banan aztertuko direla, sakon aztertu ere, jakin badakigu-eta, pertsona batzuk nolabait kaltetuta gerta daitezkeela, bai urbanizazioa diseinatzeko momentuan bai diseinu hori onartzen denean.
- ◆ Eta jakina, Imanol Landak berriro ere dio proiektu hori ez dela berehalakoa izango, **epe luzeak** ezarriko direla irudiak egiteko eta horiek garatzeko.

Getxon Euzko Alberdi Jeltzalearen konpromisoa honetan oinarritzen da: Andra Mari auzoan gure hiritarrek nahi duten bizikidetzarako nahiz giza garapenerako espazio atsegina egitea. Azken batean, Getxo bizitzeko leku egoki egin duten ezaugarriak zaintzea eta hobetzeaz gain, hori diseinatzeko getxoztarren inplikazioa edukitzea.

OINARRIZKO ARDATZAK

Hausnarketa sakona egin ondoren eta Andra Mariko auzokideek egindako eskakizunei erantzunez, EAJk oinarrizko ardatzak hauek ezarri ditu euren proposamenean:

- Indarrean dauden bete beharreko lege eta arauetan ezarritako jarduera markoa: Bilbo Metropolitarraren Lurzorurako Lurralde Plana (LLP) eta ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Premisa argi bat: Andra Mari aukera bat da, getxoztarrek gaur egun eskatzen dutenari erantzuten dion Getxoko diseinua bermez egiteko aukera, hain zuzen ere. Beraz, bizikidetzarako eta giza garapenerako leku atsegina eratu behar da (berdeguneak, hornidurak, eskolak, kiroldegiak).

Planteamendu hori sendotuko duten neurri edo tresnak nagusiak hauek dira:

- Lurzoru erabilgarria optimizatzea. Birdentsifikazioa egitea baina etorbide handirik eta altuera handiko eraikinik egin gabe. Eraikitze-tipologia etxe-uharte irekia izatea, behe+3/4 solairu batez beste, gure herriaren hirigintza-profila desorekatu gabe, beraz.
- Etxebizitza multzo eta altuerarik handienak Ibarbengoa metro-geltoki berriaren inguruan egongo dira.
- Garapen horren barruan bateragarriak izango dira bizitegitarako erabilera, etxebizitzak eta jarduera ekonomikoak (merkataritza, lanbide liberalak etab). Auzoan eta kaleetan bizitasuna nahi dugu.
- Gure gazteentzat babes ofizialeko etxebizitza nahikoa jarri nahi ditugu, bai Babes Ofizialeko Etxebizitzak bai Etxebizitza tasatuak (Babes publikoko %75 etxebizitza)

- Hazkundera etenik gabe eta fasez fase egitea, udalerriko hiri-bilbeari jarraipena ematea eta ez apurtzea.
- Andra Mariko hazkundera urbanistikoaren muga dela-eta, Getxoko Euzko Alderdi Jeltzaleak konpromiso sendoa hartuko du bere gain muga hori Zientzoetxe errepidean jartzeko, eta horrela libre geratzeko da muga horretatik itsasertzerrainoko espazioa.
- Zientzoetxe errepidearen aurretik ezarrita dauden auzo-multzook zaintzeko planteamendua ere badago proposamenaren barruan.
- Horrez gain, beste konpromiso bat dago: Getxoko auzo horretan etorkizunean egingo diren bideak gaurko Andra Mariri dauden estartak moldatuz burutzeko, eta horrek udalerriko alde berezi hori eratzen duten etxebizitzetan eragingo dituen eragozpenak ahalik eta ondoen saihestea.
- Ingurumeneko inpaktuari buruzko azterlan bat garatzeko da, Euzko Alderdi Jeltzaleak bere gain hartzen duen jardueraren-lerroa ezinbestez iraunkorra dela bermatzeko. Azterlan horrek ziurtatuko du garapen horrek indarrean dagoen legediak ezartzen dituen ingurumen-irizpideak kontuan hartzen dituela.
- Getxon enplegua sortzeko apustua egingo dugu, udalerririk esparru guztietan era orekatu eta harmoniatzuan aurrera egin dezan. Horretarako, hiri-bilbean integratutako Jarduera Ekonomiko Aurreratuen arloa (Martiturri Parkea) sustatuko da.

NOIZ ETA NOLA

Getxoko Udalak ez du oraindik behin betiko erabaki loteslerik hartu Bilbo Metropolitarraren LPPren araberrako Udal Planeamenduz. Beraz, gai horri ekiteko aukera guztiak irekita daude.

Andra Mari auzoa urbanizatzeko prozesua ez da gaur biharrean egingo den prozesua. Udalak 2 urteko epea dauka bere araudia LPPk ezartzen duenaren arabera egokitzeko.

Behin egokituta, sortuko den planeamendua 8 urtetan ezarriko da, gutxienez. Horrek ez du esan nahi denbora horretan osorik garatu behar denik. Litekeena da epe askoz luzeagoa behar izatea, izan ere, Getxon sortuko diren beharrak izango dira benetan diseinu hori garatzeko epeak ezarriko dituztenak.

www.ilanda.eu

Euzko Alberdi Jeltzaleak azpimarratu nahi du prozesu hau oinarritik hasi behar dela, ez teilatutik. Hasteko, udal garapen urbanistikoa garatzeko diseinuak zein oinarritzko irizpide izan behar dituen erabaki, eta amaitzeko irizpide horiek ordenamendua garatzeko proposamen zehatzetan eratu, horrela eta ez alderantziz. Azken batean, ezin da etxea teilatutik egiten hasi.

EAJk hasierako prestaketa-lanetan adierazten direnak baino askoz etxebizitza gutxiago daudela aurreikusten du berak eszenatoki honetan, eta uste du horrek udalerriko behar errealei erantzun egiten diela.

EAJk garapen horri ekin egingo dio beharrezkoa den hauen arteko oreka helburu duela: etxebizitza beharrak eta inguruak eragindako interes orokorra, alde batetik, eta prozesu honetan inplikaturik dauden etxebizitzaren jabeen interes partikularrak. Alde bietako interesak bateragarriak dira eta badaude hori oreka hori ahalbidetzen duten formula teknikoak.

Hauxe da EAJren proposamena. Alderdi hau guztiz prest dago proposamen hori aberasteko arazo honetan inplikaturik dauden eragile sozial guztien ekarpenen laguntzaz, eta gainera argi erakutsi du hori. Eragile guztiekiko elkarrizketek aurrera egingo dute, elkarteek eta auzokideek gai honetaz dituzten iritzia eta proposamenak entzun egingo dira, Getxoko etorkizunerako diseinua denok egindako lana izan dadin.

Behetik gora egin beharreko prozesu bat da, eta ez alderantziz. Planeamenduaren oinarri izango diren funtsezko irizpideak definitzen hasi, eta horren ondoren ordenamendu proposamen zehatzetan mailaka ezartzen amaitzeko.

www.eginbehardugu.com



www.ilanda.eu

www.eginbehardugu.com

